

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezerorik gabe ezingo genuke gure helburua bete. Kotxeak dituzten pertsonak izango dira gure bezeroak, generalki kotxe elektrikoak dituztenak. Bezeroak erdi mailakoak izango dira, hau da, ekonomikoki ez dituztenak problemak baina dirua soberan ez dutenak. Produktu honekin kontaminazioa murrizteaz eta kotxearen erabilpena luzeagotzeaz aparte honen gastuak murrizten dira, kotxearen erabilpena luzatzen duelako errekararik egin gabe.

Hala ere gure intentzioa kotxe marka bati produktua saltzea eta gure natura ez kaltetzea da.

Hasiera batean gu jarri beharko gara kontaktuan bezeroekin, gure proiektuak fama lortu arte, eta ondoren web orriaren bidez eta publizitatea eginez, gure tailerrean bezeroei pertsonalki egingo diegu kasu.

Produktua hasiera batean Euskal Herrian zentratuko dugu, baina Espainiara edo beste herrialdeetara eramateko aukera izango bagenu posibilitate ezin hobea izango litzateke, gure enpresa handiagotzeko aukera izango zelako eta pertsona gehiagok erabiliko zutelako gure produktua, naturan kontaminazioa murrizten.

Oso garrantzizkoa da ditugun bezeroek gure proiektua kotxe elektrikoaren erabilpena luzatzeaz aparte, naturan egin nahi dugun aldaketaz jabetzea.

Gaur egun oso enpresa gutxi daude naturaren eta honen kontaminazioa murrizten ari daudenak, eta gutxi izateaz aparte ez da hauetaz hitz egiten, ez dira ezagunak. Guk hau aldatu nahi dugu, jendea kontzientziatu naturan dagoen kontaminazioaren problemaz.